Zaratamoko Udala

Bizkaia

ZERBITZUAK EMATEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

KIROLA SUSTATZEKO JARDUERAK

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA KONTRATUAREN XEDEA.

Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen arabera (aurrerantzean, AKPA) adjudikatuko den kontratua administratiboa da, eta administrazio publikoen kontratazioari buruzko araua aplikatuko zaio.

Agiri honek eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera dute. Agiri honen eta kontratuaren gainerako agirien arteko desadostasunik egonez gero, agiri hau gailenduko da.

Kontratuaren klausulen berri ez izateak, edozein inguruabarretan, edo kontratuaren gainerako dokumentuen berri ez izateak edo itundutakoa gauzatzeko aplikagarriak diren araudi edo jarraibideen berri ez izateak ez du adjudikazioduna salbuesten dagozkion betebeharrak bete behar izatetik.

Agiri honek aipatzen duen kontratuaren helburua da **karatularen 1.1 atalean** deskribatutako eta preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako zerbitzuak betearaztea; bertan kontuan izan beharreko alderdi guztiak eta, hala badagokio, izapide daitezkeen aldaketak zehazten dira.

Prestaketa eta esleipena egingo dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 115.etik 187.era bitarteko artikuluen arabera (SPKL aurrerantzean), biak barne, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan ezarritakoaren eta karatulako zehaztapenen arabera, bai eta esleipendunarekin formalizatzen den kontratuan jasotako itun eta baldintzen arabera ere.

CPV kodeak: **Karatularen 1.2 atalean** deskribatuta daude.

SPKLren 99.3 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak baliteke kontratua loteka ez banatzea, baliozko arrazoiak daudenean. Loteka ez banatzearen justifikazioa agiri honen **karatularen 1.3 atalean** adieraziko da.

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA.

Kontratatzeko beharra **karatularen 1.4 atalean** deskribatuta dago.

3. EGIKARITZEKO EPEA ETA TOKIA.

Zerbitzuen egikaritze-epe osoa **karatularen 1.5 atalean** deskribatzen da. Epea kontratua formalizatzen den egunetik edo kontratuan finkatutako egunetik hasiko da zenbatzen.

Baldintza teknikoen agirian berariaz aukera ematen bada lanak egiteko guztizko epea murrizteko, edo epe partzialak edo jardueren antolamendua ezartzeko, nahitaez bete beharko dira epe horiek, baldin eta hala eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

Kontratua **karatularen 1.6 atalean** adierazitako tokian gauzatuko da.

4. KONTRATUA LUZATZEA.

Kontratuaren balizko luzapenak **karatularen 1.5 atalean** daude, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeak eskatutako inguruabarrak eta eskakizunak ematen badira.

5. LIZITAZIO OINARRIAREN AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuek beti izango dute prezio zehatza, eta eurotan adierazi beharko da.

5.1. Lizitazioaren aurrekontuaren zenbatekoa **karatularen 2. atalean** ageri da. SPKLren 100. eta 309. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz prestatu da. Kalkuluak zergak jaso ditu.

Lizitatzaileek aurrekontu hori hobetu ahal izango dute.

Lizitatzaileak eskaintza ekonomikoa AKPA honen **1. ERANSKINAREKIN** bat etorriz aurkeztu beharko du. Eskaintzan kontratuaren xede diren prestazioak egikaritzearen ondoriozko gastu guztiak sartuko dira, hala nola langileen ordainsariak, gizarte-kargak, ordezkapenak, aseguruak, prestakuntza, gastu orokorrak, finantzarioak eta irabaziak.

Aplikatzekoak diren gainerako zergak, tasak eta kanonak ere barne hartzen dira, baita agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, mozkinak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, bere ardurapeko teknikarien ordainsariak, bisatuak, etab.).

Udalak ez du ordainduko esleipen-prezioa baino kontzeptu edo kopuru handiagorik.

5.2. Kontratuaren publikotasunari eta adjudikazio-moduei dagokienez, legeak aurrez ikusten duenerako, kontratuaren balio zenbatetsia **karatularen 3. atalean** xedatutakoa izango da.

5.3. Kontratuaren prezioa kontratuaren adjudikaziotik eratorriko da, eta partida bereizi gisa adieraziko da BEZa. Kontratuaren prezioan txertatutakotzat joko dira aplikatu beharreko edonolako kanonak, tasak eta zergak, bai eta agirian jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren gastu guztiak ere.

6. ADMINISTRAZIOAK FINANTZATZEA ETA PRESTAZIOAK BETETZEA.

Administrazioak finkatutako gehieneko aurrekontuaren zenbatekora arte kreditu nahikoa dago **karatularen 4. atalean** deskribatutako aurrekontu-partidan.

Ordainketaren ondorioetarako, kontratistak hilero fakturak egingo ditu. Faktura horietan, egindako zerbitzuak eta horien iraupena azalduko ditu, eta ez du eskubiderik izango kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik gabe egindako hobekuntzak kobratzeko.

Kontratistak, emandako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik, egindako faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkeztu beharko du, faktura izapidetzea dagokion administrazio-organoari edo unitateari bidaltzeko. Hori guztia, faktura elektronikoa sustatzeari eta Sektore Publikoko fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen arabera (abenduaren 28ko BOE, 311. zk.).

SPKLren 32. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, eta dagozkion fakturetan jaso dadin, adierazten da kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio-organoa Udaleko Kontu-hartzailetza dela, Kontratazio Organoa **karatularen 5. atalean** ezarritakoa eta unitate hartzailea Udaleko bulego teknikoa.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioen berrikuspenean **karatularen 6. atalean** zehaztutakoa beteko da; hori guztia, SPKLren 103. artikuluarekin bat etorriz.

8. BEHIN BETIKO BERMEA.

145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren eskura; SPKLren 159.6 artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik. Zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren **karatulako 7. atalean** ezarrita dago.

Behin betiko berme hori eratzeko epea zazpi (7) egun baliodunekoa izango da, esleipenerako proposatutako eskaintza delako errekerimendua jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako moduren batean eratu ahal izango da. Eratu dela egiaztatzeko, bide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabili ahal izango dira. Betekizun hori betetzen ez bada, lizitatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak ez du adjudikazioa haren alde egingo.

Kontratuan egindako aldaketaren baten ondorioz prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, prezio berriarekiko proportzio egokia gorde dezan, enpresaburuari kontratua aldatzeko erabakiaren berri eman eta hamabost egun igaro baino lehen.

Bermearen itzulketa edo baliogabetzea, guztizkoa nahiz partziala, hala badagokio, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da, bermearen aldia agortzen denean eta adjudikaziodunak bere kontratuzko betebehar guztiak betetzen dituenean.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratu hau karatulako **I. atalean** aurreikusitako prozeduraren bidez esleituko da. Prozedura hori izapidetzean, lege horretan eta lege hori garatzeko arauetan jasotako jarduerei jarraituko zaie.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Lizitazio hau baliabide elektronikoen bitartez egingo da SPKLren xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz. Ondorioz, Udalak lizitatzaileekin izango duen harremana batik bat bide horietatik izango da.

Kontratu honi buruzko informazioa, agiri honetan xedatutakoaren arabera kontratatzailearen profilean argitaratuko dena, honako helbide elektroniko honetan kontsultatu ahal izango da: https://www.zaratamo.com/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/default.aspx.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira honako prozesuari jarraikiz:

1) Hartzailearen esku jartzea.

2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukian sartzea.

Epeak jakinarazpenaren oharra jasotzen denetik hasiko dira zenbatzen, ohar hori egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen bada, edo jakinarazpena hartzen denetik egun berean argitaratzen ez bada.

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean, hartzaileak ez badu onartzen edo ezesten badu, iraungitzat joko da eta jakinarazpenaren izapidea formalki betetzat joko da.

Hala eta guztiz ere, ahozko komunikazioa erabil daiteke SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian araututako ustezkoetan.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Pertsona natural nahiz juridikoek kontrataziorako prozedura honetan parte hartu ahal izango dute, jarduteko gaitasun osoa eta gaitasun juridiko osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Gainera, ezin izango dira SPKLren 71. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debekuetako batean ere sartuta egon.

Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde askietsiren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa haren ordezkariren bat agertzen bada, horretarako ahalmena duela justifikatu beharko du agiri bidez. Kasu batean zein bestean, SPKLn ezarritako kontratatzeko ezintasun-arrazoiek eragiten diote ordezkariari.

Pertsona juridiko diren enpresaburuek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, proposamena aurkezten duten unean:

• Merkataritza-erregistroan inskribaturiko eratze- edo/eta ahalduntze-eskritura eta sozietatearen estatutuak, bai eta, hala badagokio, izan dituen aldaketak ere, betiere eskakizun hori aplikaziokoa den merkataritza-legeriaren arabera eskatzen bada. Horrelakorik eskatu ezin bada, eratu edo aldatzeko eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio-egintza eman beharko dira, hala denean, bidezko Erregistro Publikoan inskribatuta egongo direnak. Bertan beren jarduera arautzen duten arauak agertu beharko dira.

• Identifikazio-fiskaleko txartelaren kopia kautotua.

• Proposamena sinatzen duenaren ordezkaritza-ahalmen askietsiak nahikoa egiaztatzen dituen dokumentua.

• Europar Batasuneko estatu kideetako (Espainia kanpo) enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, AKPAren Arautegi Orokorreko 1. eranskinean adierazten diren lanbide- edo merkataritza-erregistroetako baten inskribatuta egoteko ziurtagiriaren bidez.

• Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarren kasuan, SPKLren 68. artikuluan eskatzen diren baldintzak ziurtatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira.

• Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duten frogagiriak.

• Banako enpresaburua bada, nortasun-agiri nazionalaren bidez.

Era berean, pertsona horiek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eskatu daitekeen enpresa gaitasuna edo gaitasun profesionala izan beharko dute. Horien jarduerek, helburuek edo funtzioek zerikusi zuzena izan beharko dute adjudikazioaren xedearekin, dagozkien estatutuen edo fundazio-arauen arabera, eta elementu pertsonal eta materialez osaturiko antolamendua izan beharko dute kontratua behar den moduan betetzeko.

Enpresaburuen aldi baterako enpresa-elkarteak direla eta, eraketaren aldaketari eta lizitazioan aldatzeko kasuei dagokienez, 69. artikuluko 8. atalean eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko da.

Sozietate kontratista parte-hartzaile den enpresen fusio kasuetan, indarreko kontratuak erakunde bereganatzailearekin jarraituko du edo fusioaren ondoriozkoarekin, eta subrogatuta geratuko dira haren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak. Era berean, enpresen edo horietako jarduera-adarren zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratuak kontratua adjudikatzen zaion erakundearekin jarraituko du, eta subrogatuta geratuko dira haren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak, betiere kontratatzeko gaitasun eta debekurik ezeko baldintzak betetzen baditu eta adjudikazioa adostean eskatutako kaudimena edo eragiketa horien sozietate onuradunek eta, iraunez gero, ondarea, enpresak edo bereizitako adarren oinarri den sozietatea solidarioki kontratuaren betearazpenekoen erantzule egiten badira. Subrogazioa gertatu ezean, kontratuaren adjudikaziodun den erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua indargabetu egingo da, eta ondorio guztietarako hartuko da adjudikaziodunaren erruagatik indargabetu dela.

Aurreko ondorioetarako, enpresak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio gertakaria.

Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodun izan ahalko dira, baldin eta kontratuko prestazioak erakundearen berezko helburu, xede edo jarduera-eremukoak badira, estatutuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

13. KAUDIMENA.

Enpresaburuaren sailkapena ez da eskatuko. Kaudimen ekonomikoa edo finantzarioa eta profesionala edo teknikoa egiaztatzetik salbuetsiko dira lizitatzaileak, baina Kontratisten Erregistroko inskripzio-ziurtagiria aurkeztu beharko du, SPKLren 159.4.a) artikuluan eskatzen dena, indarraldiari buruzko adierazpenarekin batera.

Eskatzen diren baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz egiaztatu ahal izango du kontratistak bere kaudimena.

Edonola ere, sailkapena eta kaudimen-bitartekoak **karatulako 8. atalean** eta hurrengoetan zehaztuta daude.

Aldi baterako elkarteen sailkapena enpresa elkartuen sailkapenak metatzearen emaitza izango da. Nolanahi ere, metaketa egiteko, guztiek aldez aurretik enpresa gisa sailkatuta egon beharko dute.

Sailkapenik gabeko enpresen kasuan:

13.1 EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

Kaudimenaren betekizuna **karatulako 9. atalean** dago deskribatuta.

13.2 TEKNIKOA ETA PROFESIONALA.

Kaudimenaren betekizuna **karatulako 10.1 atalean** dago deskribatuta.

Lizitatzaileek, kaudimena edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzeaz gain, konpromisoa hartu behar dute **karatulako 10.2 atalean** zehazten diren gutxieneko baldintzak betetzen dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak kontratua gauzatzeko erabili edo atxikitzeko.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.

Kontratuaren adjudikazioaren oinarri izango diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta adjudikatuko zaien haztapena **karatularen 11. atalean** daude.

15. KONTRATAZIO-MAHAIA.

Kontratazio Mahaia da organo eskuduna administrazio-dokumentazioa kalifikatzeko eta eskaintzak ebaluatu nahiz sailkatzeko. Xede horrez, SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 7. atalean ezarritako legeko preskripzioei jarraikiz eratuko da. Mahaiburu bat, mahaikide bat eta idazkaria izango ditu.

Kontratazio Mahaiaren osaera **karatularen 12. atalean** deskribatzen da eta kontratatzailearen profilaren bitartez argitaratuko da, lizitazio-iragarkia argitaratzean, edo eratu aurretik argitaratuko da aipaturiko profilean berariazko iragarkia jarrita.

16. BITARTEKO ELEKTRONIKOAK.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, eta KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI izenekoan kokatutako LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA aplikazioa erabiliko da.

16.1 Erabiltzeko betekizunak

1. Betekizun administratiboak:

a) Izapidetze elektronikorako EAEko Administrazioak baimendutako ziurtagiri digitala izatea. Gaur egun ziurtagiri elektroniko horiek honako hauek dira:

- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- FNMT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- e-NAN

b) Horrelako egoeraren batean egotea:

a. Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea.
b. Aldi bateko gaikuntza sisteman alta emanda izatea.
c. Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkarrekin aurkezten badira (adjudikazioa lortuz gero) modu formalean ABEE gisa eratzeko konpromisoarekin: ABEEren konpromisoa aldi bateko gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar da.

2. Aurkezteko modua:

a) 21. klausulan adierazitako dokumentuak erantsi behar dira dagozkien gutun-azaletan. Horiek dira klausularekin bat etorriz aplikazioan azaltzen direnak.
b) Bakarrik luzapen hauek erabiliz gordetako agiriak irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z
c) Birusak egoteak sistemaren eraginkortasunean sortu ahal izango dituen gorabeherak gutxitzeko, eskariak honako formatuetan bidaltzea gomendatzen da: .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff.
d) Eskaintza aurkezpen-epearen barruan jasotzat joko da, epearen barruan transmititzen hasita bidalketa arrakastaz amaitzen bada.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA AGIRIETARAKO SARBIDEA.

Lizitazio hau udal honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da. Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dago.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, deialdian xedatutako epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

Udal honetako kontratatzailearen profilera sarbidea honako helbide elektronikoaren bitartez egin ahal izango da: https://www.zaratamo.com/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/default.aspx. Leku horretan bertan agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek agiriei edo dokumentu osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskabidea egin bada eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino, gutxienez, hamabi egun lehenago.

Bat etorriz SPKLren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, agiriei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatzaileak edozein formatu ikusgaian aurkeztea akastun fitxategian txertatutako dokumentua, betiere inguruabarra jakinarazten denetik 24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik jasan eskaintzan sartutako jatorrizkoari dagokionez. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Administrazio Klausula Partikularren Agiriak aurrez ikusitakoa bete beharko dute, eta proposamena aurkeztuz gero, lizitatzaileak baldintzarik gabe onetsiko ditu klausula edo baldintza horiek, inolako eragozpen eta salbuespenik gabe.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute zer dokumentu, horien zati edo datu jo behar diren konfidentzialtzat eskaintzetan. Ez da onargarria izango eskaintzari dagozkion dokumentu ala datu guztiak orokorrean konfidentzial modura

aitortzea. Konfidentzialtasuna argi eta garbi adieraziko da dokumentuan bertan (gaininprimatzea, ertzean edo erraz identifika daitezkeen edozein modutan), eta, gainera, halakotzat jotzeko arrazoiak azalduko dira. Ez dira konfidentzialtzat hartuko lizitatzaileek berariaz halako moduan adierazi ez dituzten dokumentuak.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Lizitatzaileek gutun-azal elektroniko bakar bat (1) aurkeztu beharko dute, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta klausula honetan horietako bakoitzerako zehazten den edukiarekin.

GUTUN-AZALA/ARTXIBO ELEKTRONIKO "A": "Administrazio-dokumentazioa eta eskaintza ekonomikoa" azpititulua izango du, eta honako dokumentu hauek osatuko dute:

1) AURKIBIDEA ETA LIZITATZAILEAREN DATUAK JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO (*gutxienez, jakinarazpen telematikoak bideratzeko IFK edo IFZ azalduko da, ordezkariaren ziurtagiri elektronikoaren edo ziurtagiri pertsonalaren bidez, hurrenez hurren, sartuko baita*).

2) KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB). Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena da, zeinetan azalduko duen kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko aurretiazko eskakizunak betetzen dituela Horretarako, Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Erregelamendu Betearazlearen babesean, "Europar Batasuneko kontratazio-agiri bakarraren" KAEB inprimaki normalizatua beteko da, agiri honen **2. eranskinean** jasotzen denari jarraikiz.

Europako Batzordeak doan eta internet bidez eskaintzen duen KAEB elektronikoa deritzon zerbitzuaren bidez, agiri hori modu elektronikoan bete daiteke Interneteko helbide honetan: https://ec.europa.eu/tools/espd. Ondoren adierazten den moduan egingo da:

- KAEB elektronikoaren zerbitzuarekin, kontratazio-organoak prozedura honetarako KAEBren eredu bat sortuko du eta lizitatzaileen esku jarriko da XML formatu normalizatuan kontratatzailearen profilean, deialdiko gainerako dokumentuekin batera (dokumentazio osagarri gisa).

- Lizitatzaileak bere ordenagailuan gorde beharko du XML eredua. Ondoren, KAEB elektronikoa deritzon zerbitzura sartu eta hau egin beharko du: fitxategia inportatu, beharrezko datuak bete, fitxategia inprimatu, sinatu eta KAEB aurkeztu lizitazioko gainerako dokumentuekin batera.

Zenbait enpresaburu aldi bateko elkartea sortuz aurkezten badira, bakoitzak jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko du, eta horietako bakoitzak KAEB inprimaki bereizi bat aurkeztu beharko du, baita klausula honen atal honetan eskatutako gainerako dokumentuak ere; bidenabar, konpromiso idatzi bat ere aurkeztu beharko dute, bertan agerraraziz enpresaburuen izenak eta elkartzeko inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza ehunekoa eta elkartean ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzea, kontratua indarrean dagoen bitartean ordezkari gisa jardungo duena administrazio kontratatzailearen aurrean. Elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatu beharko dute aipatutako agiri hori.

Lizitatzaileak kaudimena egiaztatzeko beste erakunde bat(zu)en gaitasunetara joz gero, erakunde horren/horien KAEB bereizia ere aurkeztu beharko du.

Kontratua loteetan banatuta badago eta eskatzen diren kaudimen ekonomikoko eta finantzarioko edo teknikoko eta profesionaleko eskakizunak lote batetik bestera aldatzen badira, lote bakoitzeko edo kaudimen-eskakizun berak aplikagarri daukan lote-talde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean eta Enpresa Sailkatuetan edo EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri diren enpresek hala adierazi beharko dute KAEBren inprimakian, eta eskatutako datu edo informazioren bat ez badago erregistro horretan edo ez dago eguneratuta, orduan aipatutako inprimakia betez aurkeztu beharko dute.

Dena den, kontratazio-organoak egokitzat jotzen badu, prozeduraren xede egokia bermatzeko, adjudikazio-proposamena hartu aurreko edozein unetan eskatu ahalko du lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izateko ezarri diren baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko.

3) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. **3. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera bete beharko da, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta. Kaudimen- eta gaitasun-baldintza desberdinak dituzten loteen

lizitazioaren kasuan, parte hartzen duen loteen adina aitorpen aurkeztu beharko dira, behar bezala sinatuta.

4) ENPRESABURUEN ALDI BATERAKO ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA, BIDEZKOA BADA. Bi enpresak edo gehiagok lizitazioan aldi baterako elkartean eratzeko konpromisoarekin parte hartzen badute, adierazpen bat aurkeztuko dute. Horren bidez azalduko dituzte enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta adjudikaziodun izanez gero, legez aldi baterako elkartean eratzearen konpromisoa hartzen dutela. Aipatutako agiria elkartea osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek izenpetu behar izango dute. Halakoetan enpresa bakoitzak bere KAEB aurkeztu beharko du.

5) ENPRESABURU ATZERRITARREK AURKEZTU BEHARREKO ESPEZIALITATEAK.

Enpresaburu atzerritarrek lehen aipatutako informazioaz gain, ondoren zehazten den berariazko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Espainiakoak ez diren enpresa guztiak:

- Espainiako edozein ordenatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende ipiniko direla adierazten duen aitorpena, kontratutik zuzenean eta zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, lizitatzaileari egoki lekiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko eginda (SPKLren 140.1.f art.).

Europar Batasuneko kideak ez diren estatuetako enpresek eta Espazio Ekonomiko Europarrari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatu kideetako enpresek honako hauek aurkeztuko dituzte:

- Kasuan kasuko herrialdean Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo bulego kontsularrak emandako txostena. Enpresak ziurtatu ondoren, idatziz jasota geldituko da tokiko lanbide, merkataritza edo antzeko arloko erregistroan inskribatuta daudela, edo halakorik ezean, kontratuaren helburuak barne hartzen dituen jardueren eremuko tokiko trafikoan jardun ohi dutela.

- SPKLren 68. artikuluan adierazitako elkarrekikotasunari buruzko txostena. Arauketa bateratua bete behar duten kontratuetan, Merkataritzako Munduko Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko akordioaren estatu sinatzaileetako enpresekin elkarrekikotasunari buruzko txostena alde batera utziko da.

Erantzukizunpeko adierazpenen egiatasuna egiaztatzea: Kontratazio-organoko zerbitzuek edo kontratazio-mahaiak edozein unetan eska dezakete lizitatzaileek erantzukizunez adierazi ostean, baldintzak betetzen dituztela dokumentuz justifikatzeko. Lizitatzaileek emandako epearen barruan aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Dena den, gehienez, bost egun baliodun izango dira, errekerimendua bidaltzen zaienetik zenbatzen hasita. Errekerimendua aipatu epean behar bezala betetzen ez bada, interesdunak eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta prozeduratik baztertuko zaio.

Adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileak kontratazio-organoaren aurrean ziurtatu beharko du, kontratua adjudikatu baino lehen, eskatutako dokumentuak (jarduteko gaitasun osoa, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bai eta teknikoa eta profesionala ere, eta kontratatzeko debekurik ez izatea) dituela eta baliozkoak direla.

Artxibo **ELEKTRONIKO "A"-**ren barruan, eskaintzari buruzko dokumentazioa sartuko da, eta, **karatulako 11. atalean** zehaztutako esleipen-irizpideak aplikatze aldera, eskaintza ekonomikoa eta teknikoa jasoko ditu. Eskaintza hori PROPOSAMEN EKONOMIKO ETA TEKNIKORAKO EREDUAREN arabera idatziko da, eta gainerako dokumentazio bezala, datatuta eta sinatua egon behar da. Eredu hori, hain zuzen ere, HAKP honen amaieran ageri da, **1. Eranskin** gisa.

Proposamen ekonomikoan jasanarazi behar den balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa sartuko da, nahiz eta partida bereizi baten bidez azalduko den.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen ekonomiko bat baino ezin dezake aurkeztu, eta ez dira onartuko lizitazio-aurrekontua gainditzen dutenak.

Lizitatzaileak ezin izango du aldi baterako elkartean proposamenik aurkeztu, banaka egin badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan badago. Arau horiek bete ezean, ez dira onartuko lizitatzailearen proposamenak.

Zifratan eta letratan aipatutako zenbatekoak bat ez badatoz, azkenekoa izango da nagusi.

Ez dira onetsiko hutsak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, Administrazioak eskaintzan beharrezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea saihesten badute.

Parte hartzeko eskakizunak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenei dagokienez, lizitatzaileek zuzendu ahal izango dituzte kontratazio-

organoaren zerbitzuek edo kontratazio-mahaiak hala eskatzen badute, betiere aurkeztu ez denean edo aurkeztutakoa behar bezala beteta ez dagoenean.

Era berean, adjudikaziodun modura proposatutakoak parte hartzeko eskakizunak betetzen dituela ziurtatze aldera, kontratua adjudikatu baino lehen eskatuko zaio dokumentuak aurkez ditzan, eta dokumentuak aurkeztu ez badira edo osatu gabe badaude, zuzendu ahalko du.

Bi kasuetan lizitatzaileari hiru egun emango zaizkio, zuzentzeko errekerimendua hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epearen barruan zuzentzen ez bada, organoak edo, bidezkoa bada, kontratazio-mahaiak ulertuko du lizitatzaileak eskaintzarekin atzera egiten duela.

19. TXOSTEN TEKNIKOAK.

Eskaintzak baloratze aldera, kontratazio-mahaiak bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu.

A) Hautaketa:

- Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek forman eta garaiz “A” gutun-azalaren barruan aurkeztutako administrazio-dokumentazioa irekitzeari ekingo dio, eskatutako dokumentuak dituela egiaztatzeko.

- “A” fitxategian aurkeztutako administrazio-dokumentazioan zuzen daitezkeen hutsak edo ez-egiteak badaude, interesdunei jakinaraziko die bitarteko elektroniko, informatiko, telematiko edo idatzizkoen bidez, eta, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango die lizitatzaileei zuzentzeko. Ildo horri eutsiz, ohartaraziko zaie lizitatzailea behin betiko baztertuko dela, emandako epean dokumentazioa zuzentzen ez badu.

- Kontratazio-mahaiak zer enpresa lizitatzaile onesten diren erabakiko du. Horretarako, aditzera emango du aurkeztutako dokumentuen kalifikazioari buruzko emaitza, onetsitako proposamenak, baztertutakoak eta azkenekoak ez onesteko arrazoia ala arrazoiak.

- Ondoren, lizitatzaileen eskaintzak kontuan hartuta, mahaiak irizpide teknikoak eta ekonomikoak baloratuko ditu zazpi egun naturaletik beherako epean. Xede horrez, egokitzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahalko ditu, onetsitako lizitatzaileek aurkeztu dituzten proposamenak baloratzeko.

- Egintza mahaiak egindako proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko adierazpenarekin hasiko da. Hala, lizitazioan onetsitakoak, baztertutakoak eta, halakoetan, baztertzeko arrazoiak identifikatuko dira.

- Aurreko ataletan aipatutako jardunbide guztiak dagozkien aktetan idatziz jasoak utziko dira. Haietan azalduko dira prozeduraren emaitza eta gorabeherak.

- Gerora, egintza berean, agiri honetan aipatutako adjudikazio-irizpideen arabera, aurkeztutako proposamen ekonomikoak eta teknikoak beheranzko ordenan sailkatuko dira, baldin eta proportzioz kanpokoak edo ezohikoak deklaratu ez badira. Ezohiko balioak edo proportzioz kanpokoak sartu direlako proposamena ezin bada bete, lizitatzaileari entzungo zaio SPKLk aurrez ikusitako moduan eskaintzaren balorazioa justifika dezan. Lizitatzailearen justifikazioa eta eska daitezkeen txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratazio-organoak uste badu ezohiko balioak edo proportzioz kanpokoak dituelako eskaintza ezin dela bete, aurreko paragrafoan aurrez ikusitako sailkapenetik baztertuko du.
- Lizitatzailea baztertzeko egintza hari jakinaraziko zaio, erabakiaren aurka har ditzakeen errekurtsoekin batera.

  Karatularen 14. atalean parametro objektiboak zehaztuko dira, proposamena ohiz kanpo baxua izategatik ezin dela bete ulertzeko.

- Aurreko ataletan aipatutako jardunbide guztiak dagozkien aktetan idatziz jasoak utziko dira. Haietan azalduko dira prozeduraren emaitza eta gorabeherak.

- Kontratazio-mahaiak, adjudikazio-irizpideak baloratu ostean eta, bidezkoa bada, adjudikazio-irizpideen balorazioari buruzko txosten teknikoa ikusi ondoren, kontratazio-organoari adjudikazio-proposamena egingo dio.

- Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen baldin bada, eraginpeko lizitatzaileei agiri honetan adierazitako berdinketa hausteko irizpideei buruzko egiaztapen dokumentazioa eskatuko zaie.

- Dokumentazio elektronikoa irekitzeko prozesuan kontratazio elektronikorako plataformarekin lotuta, arazo teknikoren edo informatikoren bat dagoelako edo konexio-arazoak daudelako irekitze-egintza eten behar bada, berriz ireki behar denean aurrekoarekiko egintza-unitatetzat joko da, eta eguna iragarkia kontratatzailearen profilean jarrita jakinaraziko da.

- Aurreko ataletan aipatutako jardunbide guztiak dagozkien aktetan idatziz jasoak utziko dira. Haietan azalduko dira prozeduraren emaitza eta gorabeherak. Kalifikazio, onespen edo baztertzeari buruzko egintzen emaitza kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokionean lizitatzaileei komunikatzearen edo jakinaraztearen kalterik gabe. Lizitatzailea baztertzeko egintza hari jakinaraziko zaio, erabakiaren aurka har ditzakeen errekurtsoekin batera.

B) Adjudikazio-proposamena eta adjudikazioa:

- Eskaintzak baloratutakoan, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari sailkapen- eta adjudikazio-proposamena bidaliko dio. Proposamen horretan eskaintzak beheranzko ordenan azalduko dira, karatulan adierazitako irizpideak aplikatu ondoren, eskaintza onetsi bakoitzari emandako puntuekin. Horrez gain, puntu gehienak lortu dituen eskaintza identifikatuko da.

- Kontratazio-organoaren zerbitzuek eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen eskaintzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan eskatuko dio:

  1.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela justifikatzeko dokumentazioa eta jarduteko gaitasun osoa nahiz kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala ziurtatzen duten dokumentuak, bai eta kontratatzeko debekurik ez dagoela adierazten dutenak ere.

  2. Bidezkoa den behin betiko bermea eratu izanari buruzko adierazpena eta erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia eta dagokion ordainagiria. Adjudikazio-proposamenak ez dakar proposatutako lizitatzailearen aldeko eskubiderik, eta ez ditu horiek eskuratuko kontratazio-organoaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

  3. Enpresaburua Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide baten datu-base nazionalean ageri denean, enpresaren espediente birtual legez,

dokumentuen bilketa elektronikoaren sistema edo aurrekalifikaziorako sistema legez, eta horiek organoek doan jaso ahal badituzte, ez du edukiko frogagiriak edo aipatutako lekuetan inskribatutako datuen bestelako frogagiririk aurkezteko beharrik, eta bakarrik izango da beharrezkoa berariaz adieraztea lizitatzaileak erregistroan edo dagokion datu-basean inskribatuta dagoela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Lizitatzaile eta Enpresen Erregistro Ofizialean edo erregistro baliokidean inskribatuta egoteak inskribatutako lizitatzaileak salbuetsi egingo ditu, bertan islatutakoaren arabera eta kontrakoa frogatu ezean, kontratazio-deialdietan enpresaburuak pertsonalitatearen eta jarduteko gaitasunaren, ordezkaritzaren, lanbide- edo enpresa-gaikuntzaren, ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta sailkapenaren inguruan eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekuen egiaztapenaren inguruan dituen gaitasun-baldintzak aurkeztetik.

4. Sailkapenik lortu ez badu, enpresaburuak kaudimena ziurtatzeko **karatularen 9. eta 10. ataletan** eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko du.

Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatzeko, kontratua gauzatzeko bitarteko horiek badituela frogatu beharko du, xedapen-konpromisoaren agiria erakutsiz, eta, gainera, nahikoa direla justifikatu beharko du I. eranskinean ezarritako bitartekoen bidez. Kontratazio-organoak debekatu ahal izango du, I. eranskinean hala jasota, enpresak berak lizitatzaile baten baino gehiagoren kaudimena osatzeko parte hartu ahal izatea.

5. Ekonomia-jardueren gaineko zergarekin lotutako jarduerak egiten direnean: Jarduneko ekitaldiko alta edo azken ordainagiria, zergaren matrikulan baja eman gabe dagoela aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta, bidezkoa bada, salbuetsia egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

6. Baliabideak atxiki edo jartzeko hartutako konpromisoarekin bat, kontratua egikaritzeko baliabideak benetan badituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

7. Adjudikaziodunak enpresekin azpikontratatzeko asmoa badu, azpikontratazioa egiaztatzeko dokumentazioa, **karatularen 15. artikuluan** xedatutakoaren arabera. Dagokionari jarraikiz, adierazpen bat aurkeztu

beharko du, azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatia azaltzeko. Hala, zenbatekoa eta azpikontratisten izenak edo enpresa-profilak adieraziko ditu, eta kontuan hartuko dira gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzak. Bi alderdiek sinatuko dute, Administrazioak eskatzen duen gainerako dokumentazioarekin batera.

- SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkeztean kontratazio-mahaiak eta -organoak baimena izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean ala Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

- Gainera, hamar (10) egun balioduneko epean, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri aurkeztu beharko du, hala eskatu bada.

- Horretarako emandako epean adjudikazioduntzat proposatuko hautagaiak behin betiko bermea edo eskatutako beste edozein dokumentu aurkeztu ezean, hurrengo hautagai sailkatuari egingo zaio adjudikazio-proposamena, eta dagokion epea emango zaio aipaturiko behin betiko bermea eratzeko.

- Ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatutako dokumentazioa jasotzen denean, kontratazio-organoak kontratua hurrengo bost egun baliodunen buruan adjudikatuko dio.

- Kontratuaren adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta interesdunei posta elektronikoz jakinaraziko zaie lizitatzaileek edo hautagaiek proposamenak aurkeztean adierazi duten helbidean.

Kontratua kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren arabera adjudikatzen ez badu, kontratazio-organoak bere erabakia arrazoitu beharko du.

Kontratazio-organoak, betiere adjudikatu baino lehen, uko egin diezaioke kontratua gauzatzeari, espedientean behar bezala justifikatu ondoren, interes publikoko arrazoiak direla bide. Bestela, adjudikazio-prozeduran atzera egin dezake kontratua prestatzeko edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauetan arau-hauste bat gertatu bada eta ezin badaiteke zuzen.

20. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Karatularen 13. puntuan deskribatuta daude. Xede horrez, kontratazio-organoaren zerbitzuek ukitutako enpresei dokumentazio egokia eskatuko diete.

21. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzearekin batera burutuko da, eta ezin izango da gauzatu lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost (15) egun baliodun igaro baino lehen, kontratazioaren arloan errekurtso berezia jar badaiteke. Formalizatzeko, **karatulako 18. atalean** xedatutakoa bete beharko da.

Kasu horretan, kontratazio organoak, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, kontratuaren formalizazioa bertan behera uztea eragingo lukeen errekurtsorik aurkeztu ez bada, edo bertan behera utzi izana bukatu bada, adjudikaziodunari eskaera egingo dio kontratua formalizatu dezan gehienez bost egunetan errekerimendua jaso duen egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu ez bada, SPKLren 159.6 artikuluan aurreikusitako prozeduran izan ezik.

Adjudikazioduna aldi baterako enpresaburuen elkartea izanez gero, elkartea formalizatzeko egin den eskritura publikoa aurkeztu beharko da, eta iraupena kontratua azkendu arteko epearekin bat etorriko da.

Beharrezkoa izanez gero, kontratua administrazio-agiri batean formalizatuko da, egokituta zehatz-mehatz **karatulako 18. atalaren** arabera lizitazioaren baldintzetara, lizitatzaileei edo hautagaiei esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost (15) egun baliodun igaro baino lehen. Agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko nahikoa titulu izango da.

Kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du. Kasu horretan, berak ordaindu beharko ditu dagozkion gastuak.

Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inolaz ere sartu adjudikazioaren baldintzak aldaraziko dituen klausularik.

Kontratuaren formalizazioa kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion kausengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, lizitazio-oinarri den aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio,

BEZa aparte, zehapenaren kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen arka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71. artikuluko 2. ataleko b) letran ezarritakoa gorabehera.

Kontratua sinatzearekin batera, adjudikaziodunak AKPA, PTA eta kontratua osatzen duten gainerako dokumentuak sinatu beharko ditu.

III.- KONTRATUA BETETZEA

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Zerbitzua kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradun batek koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatuko du, eta, ondorio guztietarako, administrazioaren arduraduna izango da kontratistaren aurrean.

Orokorrean, kontratuaren arduradunaren zereginak dira, legeak xedatutakoez gain, lanak koordinatzearen ondoriozkoak, kontratuak ezartzen dituen baldintzak egiaztatu eta zaintzearekin batera.

Horretarako, kontratua gauzatzen den bitartean, arduradunak behar beste aldiz egiaztatu ahal izango du zerbitzua behar bezala ematen dela, eta lana behar bezala kontrolatzeko egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango du.

Kontratistak, kontratua egikaritu bitartean, kontratazio-organoak eskatzen dizkion agiri eta zehaztapen guztiak aurkeztuko ditu.

Kontratistak edo horren mendeko langileek egindako edo egin gabeko zerbaitek kontratuaren bilakaera egokia zalantzan jarriz gero edo oztopatzen badute, kontratazio-organoak neurriak hartzea eskatu ahalko du, adostutakoa zuzen gauzatzea lortzeko edo berrezartzeko.

23. KONTRATU-BETEBEHARRAREN ONDORE JURIDIKOAK. ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

23.1. Kontratistari ordaintzea.

Kontratistak eskubidea du prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko, dagokion faktura elektronikoa aurkeztu ondoren, eta egiaztatu eta gero, SPKLren 198. artikuluan eta kontratuan ezarritako baldintzetan deskribatutako lanak benetan egin direla eta epean.

Faktura hilabetea amaitzean aurkeztuko da, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira, Faktura Elektronikoa Bultzatzeari eta Sektore Publikoko Fakturen Kontabilitate Erregistroa Sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako kasuetan. Halakoetan, faktura aurkeztean administrazio-erregistro bat aurkezten ari da.

Kontratistak ez du ordainketarik jasotzeko eskubiderik izango egindako prestaketa lanarengatik, baldin eta kontratuaren xedearen barruan badaude, eta ez badu egiaztatzen administrazio kontratugilearen esku dagoen zerbitzuari lotutako materialak edo horniketak direla.

23.2. Kontratistaren betebeharrak. Kontratua betearazteko baldintza bereziak.

Kontratu honen araubide juridikoaren ondoriozko betebehar orokorrez gain, kontratazio-organoek baldintza bereziak ezarri ahalko dituzte, kontratua betearazteari dagokionez, betiere helburuari lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluari dagokionez, zuzenean edo zeharka baztertzaileak ez badira eta erkidegoaren zuzenbidearekin bateragarriak badira. Oro har, egikaritzeko honako baldintza berezi hauek ezartzen dira:

23.2.1 Lan, gizarte, zerga eta ingurumena babesteko betebeharrak.

Kontratistak zerga, lan, gizarte-segurantza, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze, lan-arriskuen prebentzio eta ingurumena babesteko arloan indarrean dauden xedapenak betetzeko betebeharra izango du, indarrean dauden araudietan zein kontratazio hau arautuko duten agirietan ezarritakoak.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa, kontratistak aplikatzekoa den hitzarmena aplikatu beharko die zerbitzuan parte hartzen duten langile guztiei.

Enpresa esleipendunak bere betebeharrei erantzuteko kontratatu behar dituen langileak haren mende egongo dira soil-soilik, eta kontratua iraungitzean ezingo dira bilakatu inolaz ere organo kontratatzaileko langile gisa.

Kontratistak kontratuari atxikitako langileei dagokienez, lan-baldintzen informazio-eskakizuna beteko du.

Kontratistak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

23.2.2. Zerbitzu-kontratua gauzatu bitartean lan-baldintzak mantentzea.

Kontratistak bermatu beharko die kontratua gauzatzera atxikitako langileei, indarraldi osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak ezartzen dituen lan- eta soldata-baldintzak zorrotz aplikatzen eta mantentzen direla. Era berean, kontratua esleitu ondoren, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko du, apirilaren 7ko 3/2016 Legean, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzeari buruzkoan, ezarritakoaren arabera.

Kontratistak bere langileei dagokien ordainsaria ordainduko die, aplikazioko hitzarmen kolektiboko zenbatekoaren eta modalitateen arabera, eta baldintza horiek kontratua egikaritzen den bitartean eta balizko luzapenetan zehar mantenduko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileentzat aplikaziokoa duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazioaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da (3/2016 Legea, apirilaren 7koa, kontratazio publikoan klausula sozial zehatzak sartzeko).

Konpromiso bera eskatuko zaie enpresa azpikontratistei, eta kontratista nagusiaren ardura izango da erakunde kontratatzailearen aurrean betetzen dutela ziurtatzea.

Lan-baldintzen konpromisoak betetzen ez badira kontratuak suntsiarazteko arrazoia izan daiteke. Konpromisoa azpikontratistak betetzen ez badu,

adjudikaziodunak, kontratazio-organoak eskatu ostean, azpikontratua suntsiaraziko du, adjudikaziodunak kalte-ordainerako eskubiderik gabe.

Kontratistak erantzungo du subrogatutako langileei ordainsariak ordaintzen ez bazaizkie. Gauza bera gertatuko da sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioekin, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak kontratista berriarekiko subrogatzen diren. Azkenekoak ez ditu inola ere betebehar horiek bere gain hartuko.

23.2.3 Lan-kontratuetan subrogazio-baldintzei buruzko informazioa.

Lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo efikazia orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek adjudikaziodunari lan-harreman batzuetan enplegu-emaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, adjudikaziodunei subrogazioaren mende egongo diren langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko beharrezkoa dena; informazio hori SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez emango da.

Adjudikazioduna eraginpean dauden langileen enplegu-emailea bada, aurretik aipatu den informazioa emateko betebeharra izango du, kontratuaren arduradunak hala eskatzen badu. Informazioaren zati gisa, nolanahi ere, subrogatuko diren langileen zerrendak eman beharko dira eta, horietan, zera jaso beharko da: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta kategoriaren xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren iraungitzea, langile bakoitzaren urteko soldata gordina eta subrogazioaren eraginpean dauden langileei aplikagarri zaizkien indarreko itun guztiak.

Nolanahi ere, subrogazio-erregimena dela eta, SPKLren 130. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Era berean, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoaren aplikazioa gorabehera, kontratistak subrogazioaren eraginpean dauden langileei ordaindu ez zaizkien soldatei erantzun beharko die, bai eta sortutako gizarte-segurantzarekiko kotizazioei ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langile horiek kontratista berriak subrogatu; edonola ere, betebehar hori ez zaio inolaz ere kontratista berriari egokituko. Kasu horretan, administrazio kontratatzaileak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatuta, Lege horren 130.6 artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo du.

Kontratistak SPKLren 130. artikuluan ezarritako betebeharra bete ezean, zehapenak ezarriko dira, 192 artikuluan ezarritako mugen barruan.

23.2.4 Zerbitzua behar bezala emateko baimenak eta lizentziak kudeatzeari buruzko betebeharrak.

Kontratistak zerbitzua behar bezala ematea dakarten baimenak eta lizentzia kudeatu beharko ditu, kontratazio-organoak bere kabuz kudeatzea erabakitzen ez badu eta berariaz jakinarazten ez badio.

23.2.5 Gardentasunaren betebeharrak.

Kontratistak administrazio-erakundeari, bigarrenak eskatzen dionean eta hamabost egunen buruan, informazio guztia eman beharko dio Jarduera Publikoaren Gardentasunari eta Herritarren Partaidetzari buruzko martxoaren 25eko 8/2015 Legearen II. tituluak xedatutako gardentasun-eskakizunak betetzeko. Errekerimenduan emandako epea erantzun gabe igarotzen bada, administrazio-erakundeak 1.000 euroko hertsapen-isunak jartzea erabaki dezake, interesdunari ohartarazi eta entzun ondoren. Zenbateko hori hamabost egunez behin errepikatuko da bete arte eta adjudikazio-zenbatekoaren edo unitateko prezioen araberako eskaintzaren kasuan lizitazio-aurrekontuaren % 5era iritsi arte.

Aipatutako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira; horrenbestez, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaindu beharko ditu kontratistak. Horretarako, erantzukizun zibileko aseguru-poliza sinatu beharko du, ezbehar eta urte bakoitzeko, karatulako 16. paragrafoan ezarritako zenbateko gutxieneko estaldurarekin. Kontratistak egiaztatu beharko du polizan egunean dagoela, eta zerbitzua ematen den bitartean indarrean egon behar duela. Ez-betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Baldin eta kalte-galera horiek Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzenez eta berehala sortutakoak badira, Administrazioa izango da erantzule, legeetan aipatutako mugen barruan.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara burutuko da.

24. KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK.

Zerbitzua emateko, zorrozki bete beharko dira plegu honetan eta PPTan ezarritako klausulak, eta, interpretazio teknikoaren arabera, kontratistari ematen zaizkion jarraibideak.

Zerbitzua ematen den bitartean eta berme-epea bete arte (baldin balego), kontratista izango da antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

Kontratistak isilpean gorde behar ditu kontratuaren ondorioz jakiten dituen datu eta aurrekariak (kontratuaren xedearekin zerikusia dutenak), publikoak edo nabarmenak ez badira. Kasu horretan, kontratistak datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia errespetatu beharko du, hau da, DBLO 7/2.021 eta DBEO.

25. ARRISKU ETA MENTURAN JARDUTEA.

Kontratuan kontratistak galdu-gordean jardungo du, SPKLren 197. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

26. KONFIDENTZIALTASUNERAKO BETEBEHARRA.

Konfidentzialtasuna dela eta, aplikagarria izango da SPKLren 133. artikuluan ezarritakoa.

Kontratistak eta haren mendeko pertsona fisiko edo juridiko orok, baldin eta kontratu hau dela-eta tratamenduaren arduradunaren edo arduradunaren agintaritzapean badago, eta administrazio honen ardurapeko datu pertsonalak eskuratu edo eskuratu baditzake, udal honetako tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera tratatu ahal izango ditu datu horiek, Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera datu horiek tratatzera behartuta ez badago.

Ezingo da zabaldu enpresaburuek konfidentzial gisa izendatu eta eman duten informazioa, kontratazio organoak halakotzat adostu badu. Ondorio horietarako, lizitatzaileek gutun azal bakoitzean beren proposamenaren arabera izaera konfidentzial hori izango duten dokumentazioaren zerrenda jaso beharko da, eta izaera arrazoitu beharko da.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du) xedatutakoaren babesean, lizitatzaileen eta zerbitzuko adjudikaziodunaren datu pertsonalen tratamenduari buruz honako hau jakinarazten da:

Tratamenduaren arduraduna: Zaratamoko Udala

Tratamenduaren xedea: Zerbitzuaren lizitazio hau kudeatzea eta azkenean adjudikaziodun izanez gero, kontratu-harremana eta zerbitzuak behar bezala mantendu, garatu, bete eta kontrolatzea.

Legitimazioa: Lizitatzaileen datu pertsonalei dagokienez, datu pertsonalak tratatzeko legezko oinarria edo funts juridikoa da lizitazioa kudeatzeko kontratu aurreko neurriak aplikatzea.

Adjudikaziodunaren datu pertsonalei dagokienez, legezko oinarria da alderdien artean sinatzen den kontratua betetzea.

28. ASEGURUAK.

Adjudikaziodunak administrazio kontratatzailearen aurrean aurkeztu beharko ditu erantzukizun zibileko aseguru-polizaren klausulak, betiere kontratazioaren xede diren lanak nahikoa estalita, bai zenbateko aseguratuei dagokienez, bai estaldura-baldintzei dagokienez.

Adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kalte-galerak aseguruaren frankiziari dagozkion zenbatekoetan eta berme aseguratu gisa zehazten diren kalte-ordainaren mugak gainditzen diren zenbatekoetan. Prestazioa hasi baino lehen, bai eta berariaz eskatzen zaionean ere, adjudikaziodunak administrazio jardulearen aurrean dokumentuen bidez ziurtatuko du eskatutako aseguruen kontratazioa, ordainketa, edukia eta indarraldia, eta administrazioak eskatuz gero, aseguru horiek aldatzeko konpromisoa hartzen du.

29. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KALTE ETA GALERENGATIK.

Kontratua betetzeak eskatzen dituen beharren ondorioz hirugarrenei zuzenean edo zeharka kalte-galerak sortuz gero, adjudikazioduna izango da horien erantzulea.

Eragindako kalte eta galerak administrazio kontratatzaileak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa izanez gero, hura izango da arduraduna, legeetan ezarritako mugen barruan.

Halaber, adjudikazioduna izango da garatutako lanen eta egindako prestazio eta horniduren kalitate teknikoaren arduraduna, baita kontratua gauzatzerakoan izandako ez-egiteen, akatsen, metodo desegokien edo ondorio okerren eraginez administrazio kontratatzailearentzat edo hirugarrenentzat sortu daitezkeen ondorioen erantzulea ere.

Kontratistak hirugarrenei kontratuaren helburu diren prestazioak behar bezala ez betetzearen ondorioz eragindako kalte eta galeren ordaina emateko betebeharra bete ezean, administrazio kontratatzaileak zehapenak ezarriko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak agiriaren babesean onetsitako eskakizunak ez betetzearen ondorioz administrazio kontratatzaileari zenbatekoak enpresa kontratistarekin batera ordaintzera kondenatzen bazaizkio, ordaindutakoa kontratistari jasanaraziko zaio. Hala, edozein ekintza administratibo edo judizialerako eskubidea gordetzen du, baldin eta ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratzeko egokiak eta bidezkoak badira.

30. KONTRATUA LAGATZEA.

Kontratu honen ondoriozko eskubide eta betebeharrak adjudikaziodunak hirugarren bati laga ahalko dizkio, baina, betiere, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak arrazoi erabakigarri izan ez badira kontratuaren adjudikazioan, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako ustezko eta eskakizunak betetzen badira eta lagapenak merkatuan eskumenaren murrizketa eraginkorrik ez badakar. SPKLren 214. artikuluko 2. ataleko b) letran ezarritakoa gorabehera, ezingo da baimendu hirugarren bati lagatzea, kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketa dakarrenean, baldin eta horiek kontratuaren funtsezko elementu badira.

Nolanahi ere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori emango da hurrengo idatz-zatietan aurreikusitako baldintzak betetzen badira:

a. Baimen-eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpenerako epea bi hilabeteko izango da; epe hori iraganda, administrazio-isiltasunez eman dela iritzi beharko zaio.
b. Lagatzaileak kontratuaren 100eko 20 gutxienez egikarituta izan behar du edo kontratuaren iraupen-epearen bosten bateko aldian ustiatu behar izan du Baldintza hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan, edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi bazaio negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko konkurtsoei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
c. Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratua egikaritzeko fasearen arabera eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez dio eragin behar kontratatzeko ezein debekuk.
d. Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

31. AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu dezake kontratua zati batean egitea **karatularen 15. atalean** ezartzen diren baldintzak betez gero, SPKLren 215. artikuluko 2. ataleko d) eta e) letretan ezarritakoari jarraikiz, prestazioa edo haren zati bat zuzenean kontratistak egin behar badu eta betiere SPKLren 215. artikuluko 2. atalean ezarritako eskakizunak betetzen badira.

Baldintza horiek bete ezean eta azpikontratistaren gaitasuna egiaztatu ezean eta larrialdi-egoeraren gertakari adierazgarriak edo azpikontratazioa premiazko egiten dutenak egiaztatu ezean, SPKLn aurreikusitako beste batzuen artean eta kontratua betearazteko eraginaren arabera, honako ondorioetakoren bat:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era arteko zehapena jartzea.

b) Kontratua suntsiaraztea, betiere SPKLren 211. artikuluko 1. ataleko f) letrako bigarren paragrafoan ezarritako eskakizunak betetzen badira.

Era berean, azpikontratista eta hornitzaileei ordainketak egitea dela eta, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako eskakizun eta betebeharrak bete beharko ditu.

Nolanahi ere, azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira obligaziodunak izango eta, beraz, kontratista nagusiak izango du administrazio kontratatzailearen aurrean kontratua betearazteko erantzukizun osoa, administrazio-klausula berezien agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz jarraikiz, SPKLren 201. artikuluan aipatzen den ingurumen, gizarte edo lan arloko betekizunak barne.

Baldin eta **karatularen 15. atalean** gaituta badago, lizitatzaileek beren eskaintzan azpikontratatzea aurreikusten duen kontratuaren zatia adieraziko dute, zenbatekoa eta izena edo enpresa profila hura betearazteko aginduko dien azpikontratisten lanbideko kaudimeneko edo teknikoko baldintzei dagokienez zehaztuta. Kasu horretan, azpikontratuak eskaintzan adierazitakora egokitzen ez badira, ez dira egingo, harik eta hogei egun igaro arte, jakinarazpena egin eta aurreko paragrafoan aipatutako justifikazioak aurkeztu arte, aurretik administrazio kontratatzaileak berariazko baimena eman ezean edo premiazko egoera justifikatua izan ezean, administrazio kontratatzaileak epe horretan kontrakotasuna aurkezten badu salbu.

Era berean, administrazio kontratatzaileari egingo den azpikontratuaren berri emateko aurkeztuko den idatziarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela SPKLren 71. artikuluari jarraikiz kontratatzeko inolako debekurik. Egiaztapen hori eraginkorra izan ahalko da azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez.

SPKLren 217.1 artikuluarekin bat etorriz, kontratistak kontratazio-organoari, eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaileen zerrenda zehaztua eman beharko dio, ordainketa-epearekin zuzenean lotuta dauden horietako bakoitza azpikontratatzeko edo hornitzeko baldintzekin batera. Era berean, administrazio kontratatzaileak eskatuta, haiei ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko dute, prestazioa amaitu ondoren, SPKLren 216. artikuluan eta Merkataritza Eragiketetako Berankortasunaren aurka egiteko Neurriak ezartzen dituen Legean (abenduaren 29ko 3/2004),

aplikagarri zaionean, ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan. Betebehar horiek kontratua betearazteko funtsezko baldintzatzat joko dira eta horiek ez betetzeak, ordenamendu juridikoak aurreikusitako ondorioak ez ezik, aukera emango du zehapenak ezartzeko.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio administrazio kontratatzaileari informazio horrek kontratu nagusiaren betearazpenean duen edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia.

Kontratistak ordezkariei azpikontrataziorako langileen berri eman beharko die, lan legeriari jarraikiz.

Azpikontratistaren alde eginiko ordainketak kontratista nagusiaren kontura egin direla ulertuko da, eta administrazio kontratatzaileari dagokionez obra-ziurtagirienean bezalako konturako ordainketen izaera mantenduko da.

Inolaz ere ezingo zaio egotzi administrazio kontratatzaileari azpikontratistak aurkeztutako fakturaren ordainketan atzerapena, kontratista nagusiaren adostasun faltaren ondorioz.

32. AKATSAK DITUZTEN EDO GAIZKI GAUZATU DIREN LANAK.

Adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatu eta horietako hutsei erantzungo die, eta udal-teknikariek edo kontratuaren ordezkariak prestatu bitartean aztertu edo aitortu izanak edo egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izanak eskubiderik ez du emango eta ez da salbueslea izango.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen zati bat bete ez badu, administrazio kontratatzaileak inguruabarrak kontuan hartu ondoren bi aukera izango ditu: suntsiaraztea edo zehapenak jartzea.

33. AKATSAK ZUZENTZEA ETA HUTSAK KONPONTZEA.

SPKLren 314. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, obra-proiektua osorik prestatzea xede duten zerbitzuen kontratuetan, kontratazio-organoak exijituko du kontratistak hutsak, eskasia teknikoak, akats materialak, gabeziak eta egotz dakizkiokeen lege- edo erregelamendu-aginduen arau-hausteak zuzentzeko eta, horretarako, dagokion epea emango zaio, zeinak ezingo baitu bi hilabeteko epea gainditu.

Epe hori igaro eta hutsak zuzendu ez badira, administrazio kontratatzaileak, gertakariak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo kontratistari beste epe bat ematea erabaki ahalko du.

Suntsiaraztea erabakitzen badu, bermea konfiskatuko da, eta kontratistak administrazio kontratatzaileari kontratuaren prezioaren % 25en baliokide den kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Beste epe bat ematea hautatzen badu, hilabete izango da, luzaezina, eta kontratista kontratuaren prezioaren % 25en baliokide den zehapenaren pean geratuko da.

Berriz ere araua hautsez gero, kontratua suntsiaraziko da, eta kontratistak administrazio kontratatzaileari hitzartutako prezioaren baliokide den kalte-ordaina ordaindu beharko dio, bermea galduta.

Edozein kontratistak, azken epea eman aurreko edozein unetan, proiektua egiteari uko eginez gero, kontratuaren prezioaren erdiaren baliokide den kalte-ordaina ordaindu beharko du, bermea galduta.

34. EZ BETETZEAGATIK ETA BERANDUTZEAGATIK ZEHAPENAK.

Kontratistak, beraz, kontratua gauzatzeko finkatutako guztirako epearen barruan bete behar du kontratua, edo, kontratua hurrenez hurren gauzatu behar denean, hurrengo epe partzialen barruan.

Kontratista berandutze-egoeran izateko, ez da beharrezkoa izango administrazio kontratugileak aldez aurretik esleipenduna oharaztea. Atzerapen horien ondoriozko zigorrak kontratazio-organoaren erabaki bidez ezarriko dira. Erabaki hori berehala exekutatuko da, eta ordainketa oso edo partzial gisa kontratistari ordaindu behar zaizkion zenbatekoak kenduz ordainduko dira, edo, aurkeztu beharreko fakturetatik kendu ezin direnean, eratutako bermetik egingo da. Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean (BEZik gabe) kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko, edo kontratua gauzatzen jarraitzeko, zigor berriak ezarrita. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epea luzatuko du.

Era berean, administrazio kontratatzaileak eskumen berak izango ditu, epe partzialak betetzeko berandutzea arrazoiz eragiten duenean epe osoa betetzeko ezintasuna dagoelako susmoa.

35. EZ BETETZEAGATIK BESTE ZEHAPEN BATZUK.

Arlo sozialean edo lanean kontratistak eskakizunak betetzen ez baditu, eta, batez ere, ordainsariak ordaintzean behin eta berriz atzeratzen bada edo Bizkaiko eraikuntzaren hitzarmen kolektiboak definitzen duena baino gutxiago ordaintzen badu. Administrazioak, SPKLren 201. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuta, zehapenak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak ez baditu betetzen azpikontratatzaileekiko dituen betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu,. Zigorra ezingo da izan kontratuaren prezio guztiaren 100eko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo, eta zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

36. KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratuak ezingo dira aldatu, SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. atalaren 4. azpiatalean ezarritako kasu eta moduetan, eta SPKLren 191. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorrita, SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek eginiko kontratuak indarraldian baino ezingo dira aldatu, SPKLren 203. artikuluaren 2. atalean ezarritako kasuren batean.

Administrazio kontratatzaileak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, SPKLren 206. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta SPKLren 153. artikuluan ezarritako moduan formalizatu beharko da eta lege horren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoarekin bat argitaratu.

SPKLren 309.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, prezioa prezio unitarioen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko, baldin eta administrazio-klausula zehatzen agirian hala ezarri bada, prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen gainean benetan egikaritutako unitateen kopuruan soilik gertatzen den aldaketa; unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere kontratuaren prezioa baino % 10 handiagoa ez bada.

37. KONTRATUA ETETEA.

Administrazio kontratatzaileak kontratua betearazten etetea erabaki ahalko du. Era berean, kontratua etengo da, SPKLren 198.5 artikuluan aipatzen den egoera gertatzen bada. Kontratua eteteko, SPKLren 208. artikuluan ezarritakoaren arauak hartuko dira aintzat, bai eta bat datozen APKLAOko arauak ere.

SPKLren 208. artikuluarekin bat etorriz, administrazio kontratatzaileak kontratua etetea erabakiz gero edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatuz gertatzen bada, administrazio kontratatzaileak kontratistari eraginkortasunez jasandako kalte eta galerak ordainduko dizkio, ezartzen diren arauei jarraikiz.

Adjudikaziodunak kontratua betetzea eten dadin susta dezake ordainketa 4 hilabetetik gora atzeratu bada.

Horretarako, administrazio kontratatzaileari jakinaraziko dio hilabete bat lehenago halako inguruabarra, etenaldiak sor ditzakeen eskubideak onesteko.

Klausula honetan aurrez ikusitako edozein ustezkotan, alderdiek akta idatziko dute honako hauek adierazteko: (i) kontratuaren etenaldia ekarri duten inguruabarrak eta (ii) hura gauzatzean egitatezko egoera.

38. KONTRATUA AZKENTZEA. BETETZEA ETA SUNTSIARAZTEA.

Kontratua bete delako edo suntsiarazi delako amaituko da.

38.1 Betetzea.

Esleipendunak kontratua bete duela ulertuko da dagozkion baldintzen arabera bete denean, eta administrazioaren helburua osorik bete duenean.

38.2 Suntsiaraztea

Honakoak dira kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Zerbitzua ematen hasi aurretik atzera egitea edo, kontratazio-organoari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, kontratuan bertan zerbitzua hasteko adierazitako egunetik aurrera lau (4) hilabete baino gehiagoz kontratua hastea etetea, baldintza-agirian beste epe laburrago bat aipatzen ez bada.

b) Kontratazio-organoak, zerbitzua ematen hasi ondoren, atzera egitea edo kontratua zortzi (8) hilabete baino gehiagoz etetea, baldintza-agirian beste epe laburragorik aipatzen ez bada.

c) Kontratu osagarriak suntsiarazita geratuko dira, beti, kontratu nagusia suntsiarazten denean.

Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko kausaren bat duen kaltetuak erabaki dezake betearaztea edo suntsiaraztea.

Halaber, suntsiarazteko eska dezake, nahiz eta betetzea erabaki, betetzea ezinezkoa denean.

Ez betetzearen errudun kontratista delako suntsiarazten denean, kontratistak berak administrazio kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio sortu dizkion kalte-galerengatik, kontratua suntsiaraztea erreklamatzeko azkenekoak izan ditzakeen prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuak barne.

Ez betetzearen errudun administrazio kontratatzailea delako suntsiarazten denean, administrazioak kontratistari kalte-ordaina eman beharko dio sortu dizkion kalte-galerengatik, kontratua suntsiaraztea erreklamatzeko azkenekoak izan ditzakeen prokuradorearen eta abokatu-defentsaren gastuak barne.

39. BERME-EPEA.

Kontratuaren likidazioa onetsita, bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago eta **karatularen 17. atalean** zehaztutako berme-epea igarota, hura itzultzeko akordioa emango da.

Kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrak ezagutu eta horiei buruz entzun diezaioten.

40. LANEN JABETZA.

Kontratua betearaztean prestatutako azterlan eta dokumentu guztiak administrazio jardulearen jabetzakoak izango dira, eta berak kopiatu, argitaratu edo zabaldu ahalko ditu, osorik edo zati batean, eta lanen egile den adjudikaziodunak ezingo dio aurka egin.

Kontratistak ezingo du kontratua betearazteko prestatutako azterlan eta dokumentuen erabilerarik edo zabalkunderik egin, dela osorik edo zati batean, zuzenean edo laburtua, kontratazio-organoaren baimenik gabe.

41. ERREKURTSOAK.

Kontratuak SPKLren 44.1 artikuluan ez badaude, horien inguruan emandako egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusitako ohiko errekurtsoak jar daitezke.

Errekurtsoen ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin daiteke jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz.

Kontratua prestatu, adjudikatu, aldatu eta egikaritzeari dagokionez, aldaketen aurkaratzeak SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedatzen diren ez-betetzeetan oinarritzen badira eta uste bada aldaketaren ondorioz administrazio kontratatzailearekin gauzatutako kontratuak berriz adjudikatu behar direla, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna, errekurtso berezia ebatzi ondoren. Azkenekoa ezinbestez jarri beharko da jurisdikzio horren aurrean aurkaratu baino lehen.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

42. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Agiri hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du eta agiri honek eta horri erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Bertan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta lege horrekin kontraesanik ez duen guztiari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araubide Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsian), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (horren bidez garatzen da partzialki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikagarri diren, hala badagokio, gainerako arauetan.

Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

43. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatu, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebatzi, interes publikoa dela eta aldatu, suntsitzea erabaki, kontratuaren egikaritzeagatik kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna aitortu, egikaritzea eten, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, betiere SPKLk eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako mugekin eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

44. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratu honetatik eratorri daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkaratu ahal izango dira. Hori guztia gorabehera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60.era artekoek araututako kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri ahalko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako beste edozein.

Adjudikaziodunak berariaz uko egiten dio bere egoitzako foruari eta Bilboko auzitegi eta epaitegi eskudunen mende gelditzuko da plantea daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko.

Zaratamon, 2022ko irailaren 15ean.

Zaratamoko Udala

Bizkaia

1. ERANSKINA:

Adjudikazio automatikorako irizpideei eta proposamen ekonomikoari buruzko dokumentazioa aurkezteko eredua.

_____ _____ jaunak/andreak (helbidea: _____ _____ _____ NIF_____), bere izenean edo, bidezkoa bada, _____ ren ordezkari gisa (jakinarazpenetarako helbidea: _____ _____ _____ IFZ: _____ **AITORTZEN DU:**

1) Kontratatzailearen profilean argitaratutako iragarkiaren berri duela. Iragarki horren bidez, karatulan zehazten den zerbitzua emateko lizitazioaren deialdia egiten da.

2) Badaki zer dioten Preskripzio Teknikoen Agiriak, Administrazio Klausula Partikularren Agiriak eta kontratu hau arautu behar duten gainerako agiriek.

3) Era berean, ezagutzen ditu Administrazio Klausula Partikularren Agiriak aipatzen dituen legezko eta araubidezko testuak.

4) Ados dago, borondatez beteko ditu eta aipatzen dituzten legezko eta araubidezko dokumentu eta testu guztiak oso-osorik eta aldaketarik gabe onesten ditu.

5) Kontratu honen xede den jarduera egiteko langileei honako kontratu hau aplikatuko zaie:

6) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela hura irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta

betebehar guztiak, eta konpromisoa hartzen duela behar diren baliabideak izateko.

7) Borondatez onesten dut amaitu arte lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesuen ondoriozko datu guztiei erakunde-gardentasuna ematea.

8) Zerbitzu guztiak honako eskaintza ekonomikoaren arabera emateko konpromisoa hartzen du:

1, SORTA: DANTZA MODERNOA ETA ZUMBA: ESKAINTZA (BEZ BARIK) (€)	**BEZa (€)**	**GUZTIRA (€)**
2. SORTA: YOGA ETA PILATES: ESKAINTZA (BEZ BARIK) (€)	**BEZa (€)**	**GUZTIRA (€)**

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontutzat honako zenbateko hauek ezartzen dira, eta ezin izango dira gainditu:

1. SORTA. DANTZA MODERNOA ETA ZUMBA JARDUERAK: 13.416,48 euro. Hau da, 11.088 euro gehi 2.328,48 euro, BEZari dagozkionak, urteko 288 orduko prestazioarekin.

2. SORTA: YOGA ETA PILATES JARDUERAK: 10.333,30 euro. Hau da, 8.539,92 euro, gehi 1793,38 euro, BEZari dagozkionak, urteko 252 orduko prestazioarekin.

Urtebeterako eskaintza osoa kalkulatzeko, honako prezio eta ordu hauek hartu behar dira kontuan:

- Dantza modernoa: 38,5 euro eta 8,085 euro BEZarenak, eta 216 ordu urtean.

- Zumba: 38,5 euro eta 8,085 euro BEZarenak, eta 72 ordu urtean.
- Yoga: 34,46 euro eta 7,0266 euro BEZarenak, eta 108 ordu urtean.
- Pilates: 33,46 euro eta 8,085 euro BEZarenak, eta 144 ordu urtean.

Zenbateko horretan sartzen dira aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta prestaziotik eratortzen den beste edozein gastu ere, edo enpresa esleipendunarentzat sortzen dena, pleguetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz.

Lekua, eguna eta proposamena egin duenaren sinadura.

Harremanetarako persona:
Emaila:
Telefonoa:

2. ERANSKINA:

KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB)

Europako Batzordeak doan eta internet bidez eskaintzen duen KAEB elektronikoa deritzon zerbitzuaren bidez, agiri hori modu elektronikoan bete daiteke Interneteko helbide honetan: https://ec.europa.eu/tools/espd. Ondoren adierazten den moduan egingo da:

KAEB zerbitzu elektronikoarekin, kontratazio-organoak prozedura honetarako KAEBren eredu bat sortuko du eta kontratatzailearen profilean lizitatzaileen esku XML formatu normalizatuan jarriko da, deialdiko gainerako dokumentuekin batera (dokumentazio osagarri gisa).

Lizitatzaileak bere ordenagailuan gorde beharko du XML eredua. Ondoren, KAEB elektronikoa deritzon zerbitzura sartu eta hau egin beharko du: fitxategia inportatu, beharrezko datuak bete, fitxategia inprimatu, sinatu eta KAEB aurkeztu lizitazioko gainerako dokumentuekin batera.

3. ERANSKINA:

ZARATAMOKO UDALAREN AURREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA

..... jaunak/andreak
(helbidea:.....; NAN
zk.:.....), bere izenean edo.....
(adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna),
..... enpresaren ordezkari gisa (helbide
soziala:.....
IFK:.....; telefono-zk:_____
posta elektronikoko helbide hau:_____

BERE ERANTZUKIZUNPEAN DEKLARATZEN DU:

A) Ordezkatzen duen enpresak legez eta agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, eta ez duela Administrazioarekin kontratatzeko debekurik (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan daude zerrendatuta debeku horiek).
B) Eskaintza egitean, enplegua babestearen, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan eta ingurumena babestearen arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak kontuan hartu dituela.

«Adierazten du lizitazio honetan era guztietako errekerimenduak, komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko datuak, Legeak ezarritako ondorio juridikoekin, honako hauek direla:

Harremanetarako pertsona.

Sozietatearen –helbidea:
PK:
HERRIA:
Telefono-zk;
Posta elektronikoko helbide hau:

Zaratamon, 2022ko aren (e)(a)n.